

CHOROA

¡Choroa, choroa!.... esatenzuten denak irichitzen ikusten zutenian, eta madarikatu bat, izugarritzko gaitzegille bat izan balitz bezela, umeak ikaratuta iges juaten ziran auzoko atarietan izkutatzera, eta aundiak alde egiten zuten pīška bat, ainbeste bildur ematen zien gizarajo arren gañetik begiak kendu gabe.

¡Choroa, choroa....! eta erriko enparantzan jendea alai zebillen tokian chorea agertzen zanean, danboliña mututzen zan, egiten zan kale zabala, igarotzen zan chorea, eta erria berriro jostatzen zan.

¡Choro gizarajoa....! Zergatik jakin gabe, jendea bildurtuta zeukan. Bere begi ederrak, begiratasun gozo eta legunezko begi aiek, biotz bigun eta ona, anima aundi baten izatea pregoitzen zuten; bere arpegi kupigarriak, anima leialeko gizona, onen gorputzeko eta umearen biotz samurreko gizon bat aitortzen zuen, eta ala ere etzuen iñork maite, etzion iñork errian itz bat mintzatzen. Beti bakarrik agertzen zan triste, lurrera begira kaleak igarotzen... Inguratzen gaituzten gauza guztiak utzita, gizonak ukatzen diguten atsegiña bertan billatu naian, begiak animara begiratian duten ergai ayetako batean zirudian zegoala beti.

Alde batera, asko urrutitu gabe eta bere nagusiarekin atzekabea erdibitu nai izan balu bezela, ibiltzen zan, beti garbia, zakur beltz eder bat, zeñak noizik beiñ biurtzen zuen buru arrotia lagunari begiratu bigun bat egiteko. Eta choroa eseritzen zanean, zakurra etzaten zan bere nagusiaren oñetan eta artutzen zituen doaikerturik, egiten ziozkan festachoak. Choroak, abere leialari begira igarotzenzuen denbora asko, eta askotan bi malko itzultzen ziran bere begietatik, eta masallaz bean chirristatuaz, erortzen ziran mundu onetan maite zuen bakarraren ille beltz eta ederren tartean galtzeko.

¡Mundu onetan maite zuen bakarra, bai! Bere ama gaiñoa illtzan ezkeroztik, zakur beltz ederrak bakarrik maite zuen chorea! Lenago amak ere maitezuen, baña illtzan, illtzan chorea illkozan bezela, zakurra

illkozan bezela. Eta choro gizarajoak ikustean nola denak bere ondotik iges joaten ziran, askotan negar egiten zuen.

Batzuetan egiten zuen alegiña alai jostatzen zebiltzan umietara gerturatzeko, baña ayek, ikaraz beterik joaten ziran laisterka chorea zetorreanean... Beñ, beñ bakarrik ume chiki bat irichi zan bere ondo-raño. Choroak muñ asko eman ziozkan, eginzion festacho asko... Umechoak ezpañak iriki zituen farre gošo bati ateratzen utzitzeko, eta choroak esan zion:

— Zuk, zeruko aingeruchoa, esan zazu ez naizela gaiztoa... esan zazu maite ditudala umeak eta aundiak... ederra... nik ez det amarik ¿badakizu?; an dago, lur dontsuan, illobi donean. Orregatik ez nau iñork maite, ez daukat zeñek mušu emanik eta zeñek lagundurik... muñ ekatzu zuk, aingeruchoa!... ekatzu mušu! —

Eta umiak mušu eman zion. Eta choroak alaitasunez negar egin zuen.

— Zeñ onak zeraten umeak. Nere ama ill zanez keroztik, zakurra izanda nere lagun bakarra: orain zu ere izango zera ¿ez da ala, aingeruchoa? —

Eta chorea doaitia ustetzen zan umearekin mintzatzean, aurrari masalla gorrituetan muñ ematean, umea farrez ikustean. Eta ikusi zuen emakume bat laisterka beregana zetorrela. Eresiaz betea irichizan umearen ondora eta ikusi zuanean nola farrez bere beso chikiakin laztantzen zan chorearen lepora, urrutitzea galerazi izan nai balio bezela, eginzan bere jabe, eta polliki, polliki, artu zuen aurra choroak esanten zuen bitartean;

— Ume doatsua... ama badauka... nik ere izan nuen, baña oraiñ ez daukat... —

Eta emakumea izkutatu zan umearekin, Jaungoikoari eskerrak emanaz izugarritzko gizarajoen atzaparretatik gaitzik gabe atera zuelako...

*
* *

Gogoen (1) eguna zan. Erri guzia igozan illdakoan urira, zuatz tartean izkututzen zan lur deun artara, ill ziranak gatik Jaungoikoari otoitzera. Gizonak eta andreak zijozten eta zetortzen obi batzuetatik bestietara otoitzak esanaz, eta ez ziran guchi seme maitearen edo ama onaren gorputza gordetzenzuen kurutzearen aurrean belauniko jartzen ziranak. Lur deuna zegoan betea, eta ezpañ batzuek «Choroa, choroa... esan-zutenean jende guztiak begiratu zuen atera bildurrez benerix. Laister agertuzan choroa, kendu zuen chapela sarreran, eta aurreratu zan. Beti bezela, jendea urrutitu zan piška bat Choroa joan zan obi batera,

(1) Gogo: Alma. — Ame.

belaunikatu zan kurutzearen oñean, eta muñ eman eta gero, itzuli zan jendearen aldera. Eta mintzatu zan.

— Ez ikaratu, esan zuen. Zuen amarengatik otoitzera etorri zerate; nik ere ama izan nuen. Orain ez det; emen dago zuenarekiñ, ez det geiago ikusiko. Iges egin zazute nere aldamenetik, chit gaiztoa naiz; nik umeak lapurtzen ditut esaten dezutenez. Erri onetan laztandu det ume bat bakarrik, eta arrek etzuen bere amarekin joan nai, nerekin nai zuen egon; eta oso gaiztoa naiz festachoak egitan nizkiolako neri amak egiten-zizkian bezela nik ama nuenian... orain ez det... ¡nere ama maitea! ¡Izan zadazu zure semearen kupira! ¡ez da gaiztoa erriak orrela sinistuagatik! —

Eta malkoakin bere amaren obia busti ta gero, igarotu zan negarrez jendearen erditik, eta artu zuen errira zijoan bidechoa, ikusi gabe nola emakume batek, choroak errian laztandu zuen umea besoetan artuta, jarraitzen zitzayon ez zezakean esan beññere geiago zeñek maite ez zeukala errian.

MUJKA-KO GREGORIO.

Madrid-en 1907-ko Otsaillean.

